

## XX. mende hasierako bertsolarien argudiaketa eta orduko idazleen eragina euren bertsogintzan

(The story lines of *bertsolaris* at the beginning of the 20<sup>th</sup> century. Influences from writers of the period in *bertsolaris*)

Barandiaran Amarika, Asier

Universidad de Navarra. Lingüística Hispánica y Lenguas Modernas.  
Edificio de Bibliotecas. 31080 Pamplona-Iruñea

BIBLID [1137-4454 (2009), 24; 71-86]

Jaso: 2005.04.27  
Onartu: 2005.05.16

---

*Ezaguna da XX. mendearen hasieran irakurle eta bertolari batzuen arteko erlazioak eta ekoizpenen kourua ugari eta oparoak izan zirela. Artikulu honetan, erdi-ahozkotasunaren kontzeptutik abiaturik, euskal idazleen ideia, irudi, metafora eta bestelako baliabideren oihartzuna arakatu da XX. mendearen hasierako zenbati bertsolariren bertsogintza oinarritzat hartuta. Ahozkotasunaren idatzizko ekoizpenaren urrutiko isla eta oihartzuna izaten ahal dela frogatzeko asmoa dago hemen.*

*Giltza-Hitzak: Argumentu. Argudiaketa. Sinbolo. Sinbolismo. Ahozkotasun. Erdi-ahozkotasun. Bertso.*

*Es conocida la relación entre algunos lectores y bersolaris a principios del siglo XX y la abundante y rica cantidad de producciones que se dieron entonces. En el presente artículo, partiendo del concepto de semioralidad, se analiza el eco de ideas, figuras, metáforas y otros recursos partiendo de la versificación de determinados bersolaris de comienzos del siglo XX. El propósito del trabajo es probar que esto puede ser el reflejo y eco lejano de la producción escrita de la oralidad.*

*Palabras Clave: Argumento. Argumentación. Símbolo. Simbolismo. Oralidad. Semioralidad. Estrofa.*

*Au début du XX<sup>e</sup> siècle, on sait que les rapports entre lecteurs et bertsolaris ont été fructueux et ont débouché sur une production notable. Partant de la notion de semi-oralité, cet article aborde les sources d'inspiration - idées, images et métaphores, entre autres - dans lesquelles ont puisé certains écrivains basques, sur la base des vers de plusieurs bertsolaris du début du XX<sup>e</sup> siècle. Il s'agit ainsi de démontrer que l'oralité peut constituer le reflet et l'écho lointain de la production écrite.*

*Mots Clé : Argument. Argumentation. Symbole. Symbolisme. Oralité. Semi-oralité. Vers.*

## SARRERA

Izenburuak dioen bezala literaturaren eragina daukat aztergai. Non? bada, XX. mende hasierako<sup>1</sup> bertsolarien ekoizpenetan.

Bertsolari hauek hartuko ditut kontuan:

Pedro Maria Otaño Barriola (1857-1910)  
Kepa Enbeita "Urretxindorra" (1878-1942)  
José Manuel Lujanbio Retegi "Txirrita" (1860-1936)

Bertsolari hauek hartzearen arrazoiak honako hauek dira:

- Hirurak aritu ziren bat-bateko bertsolaritzan, eta beren bertsogintzaren zatirik zabalena bat-batekoa izan zen, kuantitateari zein herriarengan izan zen oihartzunari dagokionez, nahiz eta haiengandik guganaino heldu den gehiena idatzizkoa izan (eta ez horrenbeste transkribatutako edo grabatutako<sup>2</sup> ahozko ekoizpena).
- Hirurek jarri zituzten (idatziz) bertsoak: bat-bateko saioetan erabiltzen ziren (eta diren) baliabide, teknika, estilo eta metrika berbera erabiliz. Urretxindorra eta Otañoren kasuetan, eurak ziren euren bertsoen idazleak. Txirritak, osterak, beste pertsona batez baliatzen zen buruan konposatzen zuena, hitzez hitz, transkribatzeko<sup>3</sup>.

Helburua hauxe da: bertsolari hauen bertsogintza garai hartako euskal idazleen ekoizpenekin alderatzea. Bereziki Lauaxeta<sup>4</sup> eta Lizardiri<sup>5</sup> egingo zaie erre-

---

1. "Hasiera" horren mugatzat, lan honetan behintzat, 1936. urtea ezarri dut, bertsogintzak (eta euskarazko literatura) etenaldi bortitz bat jasan zuen urtea, hain zuzen.

2. Pentsatzekoa denez, aipatutako bertsolarion garaian ahozko jardunak grabatzeko tresnarik ez zegoen ia-ia inoren esku.

3. Txirrita plaza gizona zen, nagusiki, egoera informaletan bat-batean aritzen zena: lagunartean, tabernetan, sagardotegietan, kalean... Egoera "formalagoetan" ere (aldeaz aurretik antolatutako bertso-saioak, herriko festaren baten, bertsolari-txapelketetan...). Baina ezin da ahaztu, bertso-jartzailera ere bazela. Hona hemen Antonio Zavalak honi buruz dioskuna: "Ainbeste gauza, gertaera eta kontu esaten zioten, arek danak aditu eta illobak apuntatu egiten zituen [...] Enkargua artzen zuenean, bereala asiko zan bertsoak pentsatzen eta sumatzen. Kaso edo motibo bakoitzari bi edo iru bertso jarriko zizkion, ta gogoan eduki ere bai illobak apuntatu arte; gero beste bi edo iru. Ta orrela osatzen zituen amabi, amalau edo amasei bertso", ZAVALA, 1992 (I. alea), 259.

4. Esteban Urkiaga "Lauaxeta" (Laukiz 1905 – Vitoria-Gasteiz 1937). Honik aurrera bere ezizena (Lauaxeta) baino ez dut erabiliko. Kazetagintzan eta olerkigintzan aritu zen. Argitaratutako lanen artean, honako hauek dira azpimarragarrienak: *Bide barridak* (1931) y *Arrats Beran* (1935). Prosazko lanak *Azalpenak*, 1931-1935 eta *Azalpenak eta beste*, 1932 liburuetan jasoak izan dira (ikusi bibliografia).

5. Jose Maria Agirre "Lizardi" (Zarautz, 1896 – Tolosa, 1933). Hemendik aitzin ere bere ezizena erabiliko dut bere izen-abizien ordez. Bere poemak zenbait aldizkako argitalpenetan eman zituen argitaratu. 1932an *Biotz-begietan* izeneko poesia liburua argitaratu zuen. Hil eta gero, "Euskaltzaleak" elkarteak *Umezurtz olerkiak* (1934) izenburudun liburua argitaratu zuen, zarautzarraren olerkien bilduma bat eginez. Kazeta artikuluen hautaketa batzuk egin eta argitaratu dira, hala nola *Itz-lauz* (1934) edo *Euskera Aundiki soñekoz* (1994).

Barandiaran Amarika, Asier: XX. mende hasierako bertsolarien argudiaketa eta orduko idazleen...

ferentzia; izen ere, gure aztergaiaren garaian hauek biak nabarmendu ziren. Tematika jakin baten aitzindari eta bultzatzaile legez, Felipe Arrese Beitia<sup>6</sup> idazleari ere arreta berezia eskainiko zaio, zenbait bertsolariengan eragin zuzena izan zuelakoan.

Azterketa hau erdi-ahozkotasunean kokatzen da. Kontzeptu hau, Juan Mari Lekuonak jorratu du. Juan Mari Lekuonak berak azaltzen du zertan dantzan ahoz-kotasunetik erdi-ahozkotasunerako pausoa:

Testua ahozkoa izatetik idatzia izatera eginiko aldakuntzan, ahozkotasunaren zenbait ezaugarri galtzen diren heinean, idatzizkoaren beste zenbait eskuratzen dira, LEKUONA, J.M., 1989, 25.

Erdi-ahozkotasuna definitzen ere ahalegintzen da:

Hau litzateke mintzaldi honen ondoriorik nagusia: ahozko eta idatzizko estiloen artean hirugarren bat azpimarratzea, batetik nahiz bestetik duen testugintza, bata eta bestea nahasian joaten diren arabera, Ibídem, 39.

Paul Zumthor ikerlariak ere “oralidad mixta” delakoa aipatzen du bere *La letra y la voz* izeneko lanean, batez ere, zenbait ahozko ekoizpenetan idatzizko estiloaren azaleko kutsua antzematen denean:

[...] cuando la influencia del escrito sigue siendo externa, parcial y con retraso (ZUMTHOR, 1987, 21).

Eta jakina, izenburuan ageri denez, azterketatxo honetan argudiaketari erreparatuko zaio, diskurtsoaren analisi<sup>7</sup> jakin bat burutzeko asmoz. Beraz, abiapuntu bezala arestian aipatutako idazleen lanak hartuko ditugu eta beraien eragina erakusten saiatuko gara.

---

6. Felipe Arrese Beitia (Otxandio, 1941 – Otxandio, 1906). Itziar Urrutia Zorrozuak beren lanak argitara eman ditu azterketa kritikoa eginez (1999).

7. Aztergai ditugun testuak, bai bat-bateko *performance*an sortuak, bai ahozko estiloaz idatziz ekoiztuak, ez dira argudiozkoak izateagatik nabarmentzen, argumentuen jabe izan arren. Dena dela, argudiaketaren analisisa baliagarria suerta dakiguke gure helburuak jadesteko. Definizioa bera, kontuan hartzeko modukoa ere bada: “[...] the use of a statement in a logical process of argumentation to support or weaken another statement whose validity is questionable or contentious”, KOP-PERSCHMIDT, 159. Argudiaketa aztertzeko Josef Kopperschmidt-ek proposatzen dituen hiru pausoak baliagarriak egiten zaizkigu, erreferentzia-puntutzat gutxienez; izan ere, hona ekarriko ditugun testuak ez daude horren artikulatuak azterketa zehatzik egin ahal izateko. Hauexek dira pausook: “1. The definition of the problem. [...] 2. Formulation of the contentious thesis. [...] 3. Segmentation of the arguments. [...] 4. Reconstruction of the argumentation strands. [...] Reconstruction of an argumentative global structure. [...]”, Ibídem, 161-163.

## 1. ESTEBAN URKIAGA “LAUAXETA” (1905-1937)

Lauaxeta eta Kepa Enbeita “Urretxindorra”<sup>8</sup> garaikideak izan ziren eta Kepa Enbeitaren bertsoetan Lauaxetaren elementu batzuen kutsua ageri dela esan daiteke. Baina ez dezagun ondoriorik aurrera ekarri oraingoz. Pausoz pauso azaltzen ahaleginduko gara.

Lehenengo eta behin, hauxe nabarmendu daiteke: Urretxindorraren mezuak “zentsura” eta adimenari eragin nahi die, gero entzulearen “bihotza” edo borondatea mugitu dadin. “Inteligentzia argituz borondateari eragin” leloaz baliatu naiz hau izendatzeko. Borondateari eragiteko, lehenengo eta behin inteligentzia arrazioez elikatu behar da. Politika jakin baten propaganda egiteko horixe zen bidea. Eta Lauaxeta, ezin da ahaztu, idazlea izateaz gain, mitinlari politikoa ere bazen.

Josu Penadesek, Lauaxetaren ideologiaren gainean doktorego tesia burutu zuenak, hauxe adierazten du: “Abertzaletasunak, *aberrijaganako maitasuna* izaki, bazuen bihotzarekin zerikusirik. [...] Abertzaletasuna, ordea, ez zen bihotz inguruko sentiberatasun hutsera murrizten. Abertzaleak beharrezko zuen adimenaren parte hartzea ere. Nahikotan azpimarratu zuen hau Lauaxetak, gehienetan Sabino Arana bitarteko”, PENADES, 1996, 91-92. Ondorenean, Josu Penadesek Lauaxetaren esaldi giltzarri batzuk aipatzen ditu, aipatutako norabide horri dago-kiona: “La causa nacional vasca requiere una fina preparación” eta “nacionalismo e incultura son antitéticos”. Mitin batean esaldi hau izan zen jaso: “La idea ha llegado a todas las inteligencias, porque la verdad se abre camino, pero muchos corazones no han sentido aun el golpe del amor patrio”. Idatzitako artikuluan batean honela zioen laukiztarrek: “Txistubak bijotzak baterako igituko dauz, jakintza-tantuak ostera, talletuko itoyak legetxe, zulo galanta eragingo dau bijotzetan”, *Ididem*, 95-96.

Urretxindorrek ez du joera hau esplizituki azalduko. Praktikara eramanean, besterik ez. Ekinbideak aurkeztuko ditu, arrazoiak eutsi eta lagundurik, haien ontasuna eta gizatasuna agertu nahian.

Esate baterako, bat-bateko zein idatzitako bertso batzuetan, Urretxindorra ahaleginduko da bere herrikideak euren ama hizkuntzan mintzo zitezen, arbuia ez zezaten, bizitza zibilean ere erabil zezaten. Honen haritik, hona hemen adibide batzuk hainbesteren artean:

---

8. Garaikideak ziren arren, adinean bazegoen alderik bion artean. Ideologiaz, berriz, korda berekoak, alderdikideak izaki (EAJkoak, jakina). Biek, gainera, hainbat mitinetan parte hartu zuten (bate-ra noiz edo noiz). Hori bai, “Urretxindorra” askoz lehenago hasi zen: 1903an. “Lauaxeta”, ostera, 1930 urte inguruan eta ordurako Urretxindorra osasunez makal zebilen. Kepa Enbeitaren semea, Balendin Enbeita (1906-1986) ere aritu zen mitingintzan: “Lauaxeta, gure olerkari haundia eta euskotar jatorra, zelan eta non afusilatu eben ere, bertan (presondegian, Dueson) jakin neban. Asko mindu nintzan. Nire lagun haundia zan. Hainbat herri arakatu genduan alkarregaz, Lauaxeta hitz egiten eta ni bertotan. 31tik 35era bitartean, geldi egote askorik ez genduan egin. [...] Ez dot ikusi oraindino Lauaxeta baino euskerazko hizlari ederragorik”, ENBEITA, B., 1986, 34. Aurreratxoago honela dio: “Herrietako jaietatik aparte, hauteskude garaian, ez nintzan gelditu ere egiten. Behin egun berean, sei mitinetan parte hartu beharra izan neban. Aita, Uriarte eta ni izaten ginan gehienetan bertsolari, eta Agirre, Lauaxeta ... etab. hizlari”, *Ibidem*, 63.

Erdi billoxik ba'dago bere  
Jantzi biogu Euzkera  
Erabilteko Euzkadi'n txukun  
Alde batetik bestera.  
Jauna'k geuretzat emon euskun-ta,  
Euzkeldun onak ba'gara,  
**Guazen jantzi** ta indartuteko  
Biar daunaz laguntzera,  
(ENBEITA, 1971; 41).

[...] Berai yagokon tokijan **jarri**  
**Daigun** Euzkera garbija.  
Bestela, zelan esango dogu  
Au dala Euzkelerrija?,  
(Ibidem; 43).

Batasun testuala osatzen duen bertsoan, zenbait argudiaketa pauso antzematen dira inplizituki eta esplizituki. Aipa ditzagun labur-labur:

1. Auzia planteatzea: “bultzatu behar ote dugu euskara?”.
2. Tesia esplizituki adieraztea: “Bai, bultza dezagun, jantzi dezagun euskara, jar dezagun dagokion tokian”.
3. Argumentuen segmentazioa eta,
4. argumentu sortaren berregituraketa, erdi-esplizituki: “badakigu makal eta biluzik dagoena”; “Jaunak guretzat eman zigun erabil dezagun”; “euskaldun ona izateak euskara sustatzea dakar”; “Euskal Herriak euskara hitz egiten den lurra esan nahi du”; “lur honek izen hori izango du baldin eta euskaraz hitz egiten bada”; “euskaldunak eurak batzuetan ez dira euskaraz mintzo”...
5. Argudiaketa-egitura orokorra berreraikitzea, inplizituki bertsoen bidez adierazia. Azkeneko urrats hau bertsoa bera da. Bertsolariak ez dute esplizitu egiten bere argudiaketa-egitura, besteak beste, horren gainean gogoeta agerikorik egin ez dutelako: egitura hori bere pentsatzeko moduaren ondorioa da, ahozkotasunean pentsatzeko moduaren ondorioa<sup>9</sup>, hain zuzen. Pentsaera horretan pilatzailea eta egoerazkoa izatea gogokoago du bertsolariak, eta ez horrenbeste abstraktua.

Bertsoen neurri tradizionalak ez dute aukera handirik ematen mezuak ñabar-durez janzteko. Horren ondorioz, bertsoak oso unitate trinkoak izan ohi dira. Ahoz-kotasunaren testuingurua kontuan hartuta, bertsolariak artea behar du izan bertsoan agertu nahi dituen ideiak ondo lotu eta azken puntuak egoki isurtzeko, non mezua sublimatu egingo den. Trinkoak diren bertso horietan, batez ere ideia bat

---

9. Ahozko pentsamoldea eta berorren ondorioak Erretorikan oso era iradokitzailean azaldutan daude Walter Ong-en *Oralidad y escritura* (1987, 43-58) lanean.

“saldu” edo “hedatu” nahi denean, agintera modua sarritan agertuko da, eta Urretxindorraren bertsoak horren eredu dira.

Baina agindu, iradoki edo eskatu egingo du baldintza baten pean soilik, hau da, baldintzazko egitura erabiliz (“zentsunari” men egiten diona) edo helburu bati arreta eskainiz. “Agindua-helburua” izeneko binomioa deitu diot honi. Kepa Enbeitaren agindu guztiek helburu bat daukate.

Geure asaba zarren odola  
Daukagun arte zanetan,  
Agertu daigun euzkeldun antza  
Geure arazo danetan;  
Euzkera zarra egarriz ito  
Ez dein legorte onetan,  
Egarriz ori **ase dayogun**  
**Maite ba'dogu** benetan.  
(Ibidem; 44).

Agian konturatu gabe, baina unitate komunikatibo eta argumentatiboa da bertso hau. Bertan premisak, entinemak<sup>10</sup> eta ondorioak pilatu eta nahasten dira. Xehatzen ahalegindu gaitzen:

“Gure asaba zaarren odola” aipatzen da lehenengo bertso-lerroan. Haien “odola” izateak, jakina, haien ondorengoak izatea esan nahi du. Metonimia bat darabil; izan ere, asaben odola izatea, beren ondorengoak izatearen agerpen edo ondorioa da.

“Daukagun arte zanetan”: odol horren jabeak izateko “duintasuna” edo “ohorea” betiko izatea ez dago ziurtatua. Aspaldidanik izan da euskal kulturaren, esaterako 1876ko karlistadaren ostean, euskalduntasuna (bere elementu guztiekin: foruak, subiranotasuna, euskara, ohitura “onak”...) arriskuan egotearen sentsazioa.

“Agertu daigun euzkeldun antza”. Konektorerik erabili ez arren, agindu hau aurreko premisa edo entinema bati dago lotuta. Asaba zaharren ondorengoa izateak, haiek ordezkatzaren duten euskalduntasun bene-benetakoari eustea dakar. “Euzkeldun antza” esatean, hainbat gauza ematen dira aditzera, nahiz eta esplizituki ez esan. Orduko diskurtsoan agertzen ziren, eta euskaraz, zein abertzale giroetan zegoen makrodiskurtsoan ondotoxo ezagunak ziren.

“Euskera zarra egarriz ito/ ez dein legorte onetan”. “Euskera zarra” sintagmak, “asaba zaar” sintagmaren izenlagun berbera darama, eta ez alferrik, ezpada zentzuaren aldetik ondotoxo loturik daudelako, nahiz eta esplizituki ez. Hona hemen gorderik zegoen beste entinema bat: “euskara zaharra da arbasoengandik jarauntsi duguna, nortasun agiririk preziatuena, alferrik galtzen ezin duguna”. “Legorte” batean omen dago. Hau da, metafora baten bidez hizkuntza (hiztunak)

---

10. Entinema, Christian Plantin-en terminologian behintzat, agerikoa ez den premisa bat, edota agertzen ez den baieztapen bat, jakintzat ematen delako edo ezkutatzean halako distira estilistikoa sorrarazten delako, PLANTIN, 1998, 128. Egileen artean ez dago erabateko adostasunik (terminologiari gagozkiola). Batzuek nahiago dute “unexpressed premises” adieraztea, GERRISTSEN, 2001, 51.

egoera negargarrian daudela ematen zaigu aditzera, “itotzeko” zorian, alegoriari segida emanez. Bertso-lerro biotan azken puntuan agertzen den aginduaren helburua adierazi zaigu, jada.

“Egarri ori ase dayogun”. Agindu hau zertan datzan badaki, edo jakin behar-ko luke bertsoaren entzulea, esplizituki<sup>11</sup> esan ez arren.

“Maite badogu benetan”. Aurreko aginduaren helburua jada adierazita dago azkenaurreko puntuan, baina aginduari beste euskarri bat ematearren maitasuna aipatzen da hemen, baldintza moduan. “Benetan” horrek, badauka argudiaketa bat atzean, gutxienez Urretxindorraren berbaldian. Izan ere, zerbait edo norbait “mingañez”<sup>12</sup> maitatzea errazagoa da, “egitez”<sup>13</sup> edo “benetan” maitatzea baino.

Honen antzeko adibideak ugari dira, baina ezin gara luzatu.

Bestalde, badira irudi ugari bion lanetan, bertsolaria eta idazlearenean, agertuko direnak.

Oso originala ez, baina etekin handikoa den irudi bat “arantza” da. Sinboloaren mailara ailegatzen da irudi hau. Oinaze edo bizitzaren nahigabeen irudia da. Gure kulturaren, gainera, bada toponimo bat transzendentzia edo sinesmena, lurrarekin, hizkuntzarekin eta kulturarekin lotzen duena: Arantzazu. Bertan Ama Birjinaren santutegi bat dago, hainbat erromesaldiren helmuga, geografikoki leku garaian kokatua, hainbat artzainek (mundu tradizionala) beren artaldeak larratzen dituzten zonaldea, ohitura zaharren gordelekua “beheko” ohitura berrien eta aldaketa zurrunbilotsuen arriskuetatik babesturik. Arantzazuk bizitzaren gazi-gozaok gogorarazten ditu: arantzak, oinazeak... eta poztasuna, Ama Birjinarekin topatzeko poztasuna, existentziaren zentzua. Honela dio Lauaxetak Andra Mariri zuzendutako olerki batean:

Orra gastien eta zarren ibildeunak;  
Batzubek dakartzubez **arantzezko**-oroyak,  
eta bestiak barriz itxaropen-leunak.  
Erantzun ume- ametsak ta zarren otoyak.<sup>14</sup>  
Geyegi atsekabez neu asetuteko  
**arantzaz** josiriko amets ain gozuak.  
iZeu, Jauna naiko, alai neu erabilteko!<sup>15</sup>

11. Berrito ere adierazi ez den premisa edo, gutxienez, “statement” delako bat dago honen atzean. Euskarari egarria asetzeak, ziurrenera, hauxe litzateke: ahalik eta gehien mintzatzea, seme-alabei transmititzea, jarduera publikoetan ere erabiltzea, eta abar. Horrelako argudioak aurkitzeko ez da urrutira joan behar: noiz edo noiz agertzen dira Urretxindorraren bertsoetan euretan.

12. Urretxindorraren zenbait bertsoetan agertuko zaigu epiteto hau, eta bere semea zen Balendinen bertsoetan sarritan. Benetako ekintzei kontrajartzen zaizkien ahozko adierazpenak, *desideratumak*, eta balizko asmo “zintzoak” (gehienetan ezerezean geratzen direnak) adierazteko erabiltzen da. “I aiz mutil abilla/ bakarrik **mingañez** [...]”, ENBEITA, 1971, 161; “Euzkotar ixan gaizan/ Biotz, gogo ta adin;/ **Itzez** abertzaliak,/ Eikerakaz bardin [...]”, *Ibidem*, 37; Alperrik dira gure / **mingañezko** lanak,/ **egintzaz** ez bagara/ egizko gizonak;[...]", ENBEITA, 1986, 254.

13. “Itzez eta **egitez**/ Guztijen eredu,/ Mendigoxaliok, geuk/ Ixan biar dogu”, ENBEITA, 1971, 59.

14. URKIAGA, 1980, 20.

15. *Ibidem*, 56.

Euskalki berekoa den Urretxindorraren bertsoetan irudi hau bere bertsolari garaikideengan baino dezente sarriagotan agertzen da.

Egiz maite dan maite kutuna  
Ikusi ezin danian  
Maitaliari **arantzak** sartzen  
Yakoz bijotz bigunian [...],  
(ENBETIA, 1971; 52).

[...] Laster dozu bijotzoi  
josirik **arantzaz**. . .  
Jarraitzen bozu orko...  
“fariseoakaz”,  
(Ibidem; 58).

Egiz maite dan maite kutunaz  
Jaubetu nai dabenentzat,  
Eragozpenak eztira ixaten  
Bidietako **arantzak**; [...],  
(Ibidem; 150).

[...] Ordutik dira gure baratzan  
sortu bedar txar ta sasi,  
ta daneen arte, betiko il daiten,  
nai dabe **arantzaz** josi. [...],  
(Ibidem; 67).

Lauaxetak baditu zentzu sinbolikoa duten irudi asko eta asko, Urretxindorra beza-lako bertsolariengan presentzia nabarmena dutenak. *Aritza*, *zugatza*, *zaratza* eta *lora* azpimarratu ahal ditugu. Oso irudi arruntak dira, jakina, baina, era berean, garai hartan euskaldunak zirenen mundu bitartekoak eta ahozkotasanaren kutsukoak.

Ekoizpen literarioek erdi-ahozkotasaneko ekoizpenei detaile ñimiñoetan ageri dira nabarmenen, eta ez bertsogintza eutsiko lukeen marko ideologjiko esplizitu eta artikulatu batean. Har dezagun urdin kolorea adibidetzat, sinbolisten hain gustukoa<sup>16</sup>. Zeruetako sinboloen epitetoa da, “beheko” bizimodutik urrundu eta betierekotasunaren desioa islatzen duten sinboloena, hain zuzen.

Zer dodan eztakit, baña gexo nago:  
gorputza aul daukot, gogua ariago.  
Arratsari nago..., itxas-**urdiñari**, [...] <sup>17</sup>

Gaste zintzo batek itun so-dagijo  
ortzi **urdiñeko** ixar argjari. [...] <sup>18</sup>

---

16. Mundu hispanikoan Ruben Dario dugu aurreneko modernistetako bat eta, hain zuzen, *Azul...* da argitaratu zuen aurreneko liburua. Darioren hitzetan: “[...] era para mí el color del ensueño, el color del arte, un color helénico, color oceánico y firmamental [...] Concentré en ese color célico la floración espiritual de mi primavera artística”, DARÍO, 1995, 27.

17. Ibidem, 2.

18. Ibidem, 36.



iAma on, bijotz-bera!,  
gotzon atsegiña.  
Begi erreik baitira  
barneko **urdiña**.<sup>19</sup>  
Igande goiz au landa-gain dager  
egal **urdiñak** dardarka airian [...] <sup>20</sup>.

Sinbolismoaren eragina Lauaxetaren olerkigintzan ez da epiteto batera mugatzen, noski. Baina bertsolaritzan honelako detailetara mugatzen dela esan dezakegu ia-ia. Azaleko eragina, Europa aldeko sinbolismoa azalez baino ezagutzen ez zuten bertsolariengan.

[...] Janki **urdiñez** apain jantzirik  
Dagualarik ortze argja, [...],  
(ENBEITA, 1971; 49. *Gure Herria* aldizkarian lehendabiziko aldiz 1924an argitaratua).

Euzkoen txadon kutuna zara;  
Zu gure ganga ta ortze **urdiña**, [...],  
(*Euzkerea* aldizkarian 1931an argitaratua).

Zilegi bekit Urretxindorren semea zen Balendin Enbeita (1906-1986) zena-ren bertso bat aipatzea. Epiteto hau agertzen da (bat-bateko bertsolaritzan horren arrunta ez dena), ziurrenera bere aitarengandik jaso:

Baratz erdiko lora **urdiña**  
nai zaitut nere onduan, [...],  
(ENBEITA, 1986; 246).

## 2. FELIPE ARRESE BEITIA (1841-1906)

Idazletzat hartu behar dugu Otxandioko santugina; izan ere, ez dirudi bertso-tan sekula bat-batean aritu zenik. Hori bai, bere konposizio gehienetan bertsolaritzaren neurri estrofikoak antzematen dira, eta ondorengo hainbat bertsolariengan eragina izan zuten.

Ospera eraman zuen bertso-sorta "Ama euskeriari azken agurrak"<sup>21</sup> izan zen, metrika eta konposaketaren aldetik bertsolaritzaren estilokoa. Izan ere, orduko euskaldungoan testuak sortzeko modu hurbilagoa zen huraxe, euskaraz nagusi zen tradiziozko estilokoa.

Euskararen pertsonifikazioa atsotutako ama batengan egingo da eta baliabide honek arrakastaz hasten du bere bidea.

---

19. Ibidem, 110.

20. Ibidem, 1991, 71.

21. 1879an Elizondoko Lore-Jokoetan izan zen saritua, karlistada galdu berria eta foruak bas-kongadetan ezeztatuak izan ostean.

Neure biotzeko Amatzarra,  
Antxiñako ama Euskera  
Seme leial bat orain datortzu  
Azken agurra emotera.  
Hainbeste gerra goitu ezin da  
Danori atsotu zara;  
Zaurien zauriz galdu galdu-ta  
Amatzarra, zuaz illtzera!<sup>22</sup>

Ez da, dena dela ere, pertsonifikazioaren joera oso orijinala. Herriaren “ari-ma” pertsonifikatzea kultura askotan gertatu izan da. Alemanian, kasurako. Euskal Herriaren kasuan, erregimen juridikoa galdu ostean, geratzen dena kultura da, antzinako hizkuntza bat, ama zahar batengan pertsona bilakatuko dena. Ama horrek bere seme-alaben behar izanetan dago, nahiz eta seme-alaba leialik geratzen ote den ere zalantzan dagoen. Antzerako zerbait gertatzen da, esaterako, William Butler Yeats idazlearen *Cathleen ni Houlihan* izeneko antzerki lanean. Horrela definitzen du lan hau Conor Cruise O’Brien-ek:

*Cathleen ni Houlihan* is both the most nationalist and the most propagandist work that Yeats ever wrote. It is probably the most powerful piece of nationalist propaganda that has ever been composed. [...] Yet *Cathleen ni Houlihan* was a great success at the time, and had a powerful influence on the development of Irish nationalism in the following fourteen years”, CRUISE O’BRIAN, 1994, 61-63.

Lan honetan “Emakume Zaharra” (*Old Woman*) agertzen da, Irlandaren pertsonifikazioa hain zuzen.

Yeats idazlearen lanaren antzera, aldeak alde, “Ama euskeriari azken agurrak” bertso-sorta ezaguna egin zenetik “Ama Euskera”, “Ama Euzkadi” edota “Ama Euskal Herria”<sup>23</sup> irudiek berebiziko presentzia izango dute bertsolarien produkzioetan.

Txirritak berak 1932ko apirilaren 17an jarritako bertso batzuk<sup>24</sup> argitaratu zituen *Bertsolariya* aldizkarian aipatu dugun pertsonifikazioa egiten zuela. Izenburu honekin agertu ziren: “Amets bat Txirritak jarriya”

Bart ametsetan amona xar bat  
inguratu da nigana,  
esanaz: “Emen bada gizon bat

---

22. URRUTIA, 1999; 81.

23. Fernando Aire “Xalbador” bertsolariak (1920-1976) oso loturik ikusten zituen hizkuntza eta herria kontzeptuak. Agian horregatik “Ama Euskal Herria” kontzeptua gogokoago zuen, irudi horretan biltzen zirelarik euskararekiko atxikimendua eta, ondorio naturala bailitzan, herriarekiko edo herriaren eraikuntzarekiko atxikimendua. Horren lekuko argi eta garbia “Ama Euskal Herria” bertso sorta dugu. Bertan irudi horren pertsonifikazioa egiten da, eta egilea, apostrofe errekurtsua erabiliz, hari zuzentzen zaio: “[...] Ama Euskal-herriaz naiz naigabetua,/ uzterat doalakovtz betikotz mundua,/ bere seme alabez abandonatua;/ nor barka dezaguke gure bekatua?”, AIRE, 1976, 205.

24. Gogoratu behar da Txirritak ez zituela bere bertsoak idazten. Bere ilobari esaten zizkion eta berau transkribatzeaz arduratzen zen.

nik ezagutzen dedana?  
Anbat etzaio akordatuko  
ama-semiak gerana, [...] <sup>25</sup>

Baju bajutik galdetu niyon  
“Ama Euskera al zera?”.  
Erantzun ziran: “Bai, alaxe naiz,  
baño egin det zartzera;  
[...]Galdetu niyon: “Ama, zer dabill  
ola kopeta beztuta?  
[..] nola enintzan asarretuko  
oinbeste seme ostuta?” <sup>26</sup>

Baina aipatzera goazen Pello Maria Otañoren bertso-sorta askoz lehenagokoa da. 1891. urtean (Arrese Beitiaren “Ama Euskariari azken agurrak” agertu eta 12 urtetara soilik) Euskal-Erria aldizkarian “Amets bat” izenburudun bertso-sorta eman zuen argitara. Berta, “Ama Euskera” pertsonifikaturik agertzen da:

**Ama Euskera** naiz, Pello Mari,  
etzaitzela bildurtu;  
Kezketan nator beste aldera  
ote zeraden biurtu.  
Hainbeste semek iges egin dit  
iya naiz negarrez urtu!  
Ez ote dezu zuk ere naiko  
nere malkorik legortu? <sup>27</sup>

Urretxindorren bertsoetan pertsonifikazio honek “Ama Euzkadi” eta “Ama Euzkerea” izenak hartuko ditu:

Ija illian aurkitzen zala  
**Ama Euzkadi** laztana  
**Seme maite bat** agertu yakon  
**Arnasa** emon eutsana [...], ENBEITA, 1971, 48.

### 3. JOSE MARIA AGIRRE *LIZARDI* (1896-1933)

Badirudi Lizardiren olerkigintzaren oihartzun batzuk daudela, bertsolari zenbaiten bertsoetan. Bere poemetako kontzeptu eta abstrakzioen pertsonifikazioa oso estilizatua da. Adibidez, amonaren irudiaren anbiguotasunez jostatzen da. Existitu omen zen amona bati buruz ari da, baina era berean, sublimaturik agertzen den sasi-sinoboloa da. Familia eta herriaren jakintzaren transmisorea da. Amona hiltzean hainbesterainoko da larritasuna ezen olerkaria hasten zaizkio galdezka amonak erabili eta amonaren inguruan zeuden tresnei ea haiek gorde ote zituzten haren istorioak, haren jakintza:

---

25. ZAVALA, 1991, 496.

26. Ibidem, 496-497.

27. Ibidem, 1993, 345.

Amonaren alxia  
ago sutondoan;  
aren ipuirik al dek  
ik yaso gogan? [...] <sup>28</sup>

Hain zuzen, amona bat da ametsetan Txirritari agertzen zaiona<sup>29</sup>, eta ez ama bat.

Estiloa markatzen duen beste konposaketa bat “Gure mintzo” izenekoa dugu, Sabino Aranari eskainia. Hiru fase edo pauso antzematen dira. Lehenengoa alienazioaren egoera da. Lizardiren poetikan, alienazio hori nortasun poetiko eza da. Bigarren fasea, gizon batek eragindako askapenarena da. Gizon hori Sabino Arana da, noski. Hirugarren fasea “Pizkundearen” aroa da, itxaropenezkoa. Bertan nortasun hori berreskuratzen egiten da, olerkariak badaki nor den eta badaki zein den bere eginkizuna mundu honetan.

Urretxindorrek baditu bertso-sorta batzuk non hiru fase hauek antzematen diren. Aurreneko fasea izadia triste (“itun”) edota haserrekor batekin antzezten da:

Egun eder ta onan ostian  
Txarra datorren antzera [...]  
Alan galdu zan azkatasuna  
Alan sartu da erdera.  
(ENBEITA, 1971; 48).

Egoi-aldetik etorri ziran  
Ortots eta oñaztarrijak  
Kendu eutsezan **Areitz deunari**  
Ezkurak eta orrijak [...],  
(Ibidem).

Ortzia janzki balzagaz dakust  
Zugatz gustijak ulduta,  
Iturri-urak itxasorantza  
Or duaz negar-uluka, [...] <sup>30</sup>,  
(Ibidem; 51).

Sabino Aranaren izpirituari esker, alienaziozko egoera hori aldatzen hasiko da (bigarren fasea).

Lo-zorruan zan euzko-abendak  
zabaldutuz begijak, [...],  
(Ibidem; 60).

---

28. AGIRRE, 1994, 216.

29. “Bart ametsetan **amona** xar bat/ inguratu da nigana [...]”, ZABALA, 1991, 496.

30. *Euzkerea* aldizkarikoa, 1930ean argitaratua.

Abots onexek zuzentzen gaituz  
Egizko lagi-bidera,  
Eta bertatik aurrera guaz...  
aurrera beti aurrera!  
Aurrera, beti aurrera!<sup>31</sup>,  
(Ibidem; 54).

Inflexio puntu horrek eraginda, itxaropenezko aroa etorriko zaigu, bertsoen bidez ere iragarria (hirugarren fasea), euskal kultura, hizkuntza eta nortasunaren “Pizkundera”<sup>32</sup> izango litzatekeena:

Didar oneri erantzun deutse  
Aitz, errekarro ta ibai,  
Mendi erreka, iturritxuak  
Ta beste geyagok be bai.  
“Gora Jainkua ta Lagi-Zarra!”  
Didar egin dabe alai,  
Aberrijaren berbizkundia  
Lenbailen dabelako nai,  
(Ibidem; 35).

Eduki narratiboa duten Lizardiren olerkiek balio sinbolikoa ere badute, argi eta garbi. Gainera, ahozko estiloan txertatuak izateko oso egokiak dira, bertsolariaren eta bere entzuleriaren eguneroko bizitzatik gertu dauden irudiak erabiltzen dituelako<sup>33</sup>. “Asaba zaarren Baratza” da poema horietako bat. Olerkaria bere arbasoen baratza itzuli eta bere amonarekin topatu da. Baratza abandonaturik dago, utzia. Baina amonarekin izan duen egotaldi horrek baratza biziberritzeko gogoa eta desio bizia piztuko dio. Esanguratsua da hemen ere arestian aipatutako fase edo aroak agertzea (epigrafe batzuek adierazia). Iraganaren aroa edo aldiak *Lee-na* du epigrafetzat; oraina edo amonarekiko topaketak *Oraña* eta itxaropenezko geroak *Etorkizuna*. Hori guztia olerkariaren barne “Taborreko” antzaldaketaren ostean.

“Baratza”, irudi legez, metafora bilakatzeko egokia izateaz gain, alegoria sinbolikoak eragiten ditu. Poesiara egindako hurbilketarik estuena da, baina betiere erdi-ahozkotasunetik atera gabe.

Hasieran aipatuak izan diren hiru bertsolarietarik, Urretxindorrek irudi hau erabiliko du sarrien, sinbolismoaren mugara lerratuz:

---

31. *Euzkadi* aldizkarian agertua, 25-XI-1931.

32. “Pizkunde” deituriko mugimenduan aitzindariak izan ziren idazleak. Zenbait bertsolari ere, horren partaideak izan ziren, Urretxindorra horietako bat izanik.

33. Walter Ong-ek azaltzen duen bezala, hau ahozko estilokoak diren testuen ezaugarri bat da: “En ausencia de categorías analíticas complejas que dependan de la escritura para estructurar el saber a cierta distancia de la experiencia vivida, las culturas orales deben conceptualizar y expresar en forma verbal todos sus conocimientos, con referencia más o menos estrecha al mundo vital humano, [...] (ONG, 1987; 48).

Ordutik ona gure **baratzan**  
Ikusten dira sastraka, sasi,  
Erdelkeri ta zikinkeriak  
Nai dabela ixan bertako nausi.  
(ENBEITA, 1971; 46).

Hiru bertsoko sorta bat dauka, gainera, “Gure baratza” izenez bataiatua. Alegoria hutsa da. Azalpen horren gailurra, didaktikotasunez, azken bertsoa dugu. Bertan egileak esplizitu egiten du alegoria horren esanahia:

Euzkelerrija da **baratz** ori;  
Euzkera beren loria  
guretzat beintzat ludiko beste  
orok baño be obia.  
Jauna’k emoskun, geutzat, esanik  
“Zaindu bakotxak beria.” [...],  
(Ibídem; 67).

Sabino Arana aipatu dugunez, bere ideia linguistikoek izan zuten oihartzuna ekarri behar dira gogora, bere ortografia-sistema barne<sup>34</sup>. Bada, ortografia berri hau zein bere neologismoak zenbait bertsolarik apurka-apurka berenganatuko dituzte. Beste batzuek, berriz, oso azkar. Bigarren taldekoa dugu Urretxindorra.

Pello Maria Otañoren “aldaketa” pausoz-pausokoa izan zen. Bitxia da, artean abertzalea ez zen garaian<sup>35</sup>, kutsu garbizaleko neologismo batzuk erabiltzen hasi izana:

Miñberatzea gerta liteke  
zenbait egiak esanez,  
bañan ez dute kejakizunik  
Aitorren semeen lanez;  
gure **dierri** edo patria  
beartu izandu danez, [...],  
(ZABALA, 1993; 460).

Bere diskurtsoaren argudiaketan, pixkanaka-pixkanaka euskal abertzaletasunaren jarrerak txertatuz joango da, ideologia hori besarkatu aurretik<sup>36</sup>. Esaterako, Euskal Herriko lurraldetasuna edota euskaldunen arteko batasuna bultzatu beharra agerikoak izaten hasiko dira:

Jeografiya nola gauza ona baitan,  
zuk ez dakizu zenbat gustatzen zaitan.

34. *Lecciones de ortografía del euskera bizkaíno* izeneko lana da giltzarria, 1896an argitaratua.

35. 1900. urtera arte ez du ideologia hau argi eta garbi erakusten. Jarrera liberal batetik abiatua zen, eta bere bertsoetan behin baino gehiagotan Espainiako interesen alde agertzen da. BARANDIARAN, 2003, 303-308.

36. 1900. urtetik aurrera abertzaletasunaren diskurtsoa bere egiten du.

Barandiaran Amarika, Asier: XX. mende hasierako bertsolarien argudiaketa eta orduko idazleen...

Esan zazu euskara zenbat probintzitan  
mintzatutzen dan, zenbat kale ta erritan,  
eta al baldin bada zenbat baserritan<sup>37</sup>.

## ONDORIOAK

XX. mendearen hasierako bertsolarien idazle garaikideek eragina izan zuten bertsolaritzan. Bertsolariek, olerki kultuak osatzeko formazio akademikorik ez zeukaten arren, idazleen irudi, erretorika-baliabide eta joera batzuk erabili zituzten.

Idazleekin harremana izateak eta ideologikoki kidekoak edo miresteak izateak eragin hau gauzatzen lagundu zuten ezinbestean, osmosis fenomeno bat bailitzan. Baina gauzatze hori ahozko estilo batean burutuko da, bertsolari zein entzuleriaren eguneroko bizitzatik gertuko irudi eta topikoetan. Pertsonifikazioa ere (baliabideta-ko bat), ahozko antezle horren mundu tradizionaletik gertukoa izango da.

Idatziaren eragin honek bertsoen iruditegia eta transzendentzia jaso eta aberastuko ditu. Baina, gorapen horrek muga bat dauka: egoerazkoa izaten jarraitu behar du, entzulearen mundukoa, arrakastatsua izango bada.

Bertsolari batzuen argudiaketa, oinarritzko arrazoietan dago oinarrituta, zentzua edota herriaren senari men eginez. Argudiaketaren urratsak eta premisak nahastu eta pilatu egiten dira. Batzuk “ez agerikoak” izango dira, ezaguntzat ematen direlako. Beste batzuk esplizituki azalduak izaten dira, bertsoaren eduki didaktikoa azpimarratuz. Hori bai, proposamen zein mezuen ulergarritasuna eta onuragarritasuna behin eta berriz azalduko dira, garaikideak ziren euskal idazle batzuek egiten zuten antzera.

## BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Jose Maria (“Lizardi”). *Euskera aundiki soñekoz*. Bilbao, Labayru Ikastegia, 1994.
- , *Itz-lauz*. Donostia – San Sebastián: Euskalzaleak, 1934.
- , *Olerkiak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1994.
- , *Biotz-begietan*. Zarautz: Itxaropena, 1970.
- AIRE, Fernando (“Xalbador”). *Odolaren mintzoa*. Tolosa: Sendoa, 1976.
- AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka. *Bertsolarismo*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.
- BARANDIARAN, Asier. *Kepa Enbeita eta Balendin Enbeita: bi bertsolari-belaunaldi ahoz-kotasunaren harian*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 2003.
- CRUISE O'BRIEN, Conor. *Ancestral voices. Religion and Nationalism in Ireland*. Chicago (originally in Dublin): Chicago University Press, 1994.

---

37. Bertso-alegoriaren itxuran, aiton batek bere bilobari egiten dion galdera da hauxe. ZAVALA, 1993, 476.

Barandiaran Amaria, Asier: XX. mende hasierako bertsolarien argudiaketa eta orduko idazleen...

- DARIO, Rubén. *Azul.../ Cantos de vida y esperanza*. (José María Martínez, ed.) Madrid: Cátedra, 1995.
- DIAZ-PIMIENIA, Alexis. *Teoría de la improvisación. Primeras páginas para el estudio del repentismo*. Oiartzun: Sendoa, 1997.
- ENBEITA, Balendin. *Bizitzaren joanean*. Donostia: Elkar, 1986.
- ENBEITA, Kepa (Editor: ONAINDIA, Santi). *Gure Urretxindorra: Enbeita'tar Kepa'ren bertso-lanak osorik*. Buenos Aires: Ekin, 1971.
- GERRISEN, Susanne. "Unexpressed Premises" in *Crucial Concepts in Argumentation Theory* (Frans H. VAN EEMEREN, ed.). Amsterdam: Amsterdam University Press, 2001.
- KOPPERSCHMIDT, J. "An Analysis of Argumentation" in VAN DIJK, Teun (editor). *Handbook of Discourse Analysis*. Orlando (FL): Academic Press, 1985, Vol. 2; 159-168.
- KORTAZAR, Jon. *Literatura Vasca. Siglo XX*. Donostia: Etor, 1990.
- LEKUONA, Juan Mari. "Erdi ahozkotasanaren estiloaz" in *Euskera*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1988; 17-44.
- ONG, Walter James. *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*. México: Fondo de Cultura Económica, 1987.
- PENADES BILBAO, Josu. *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena*. Deusto: Universidad de Deusto, 1996.
- PLANTIN, Christian. *La argumentación*. Barcelona: (Trad. Amparo Tusón Valls) Ariel, 1998.
- URKIAGA, Esteban ("Lauaxeta"). *Azalpenak 1931-1935*. Bilbao: Labayru Ikastegia, 1982.
- Azalpenak eta beste, 1932*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte, 1991.
- Bide barridak*. Nuevos Rumbos. Bilbao: Geu, 1980 (1ª edición 1931).
- Arrats beran*. Donostia – San Sebastián: Elkar, 1991 (1ª edición 1935).
- URRUTIA ZORROZUA, Itziar. *Felipe Arrese ta Beitia: idazlan guztiak*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia; Otxandioko Udala, 1999.
- ZAVALA, Antonio. *Txirrita (lan osoa)*. Tolosa: Sendoa, 1992.
- Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I eta II)*. Oiartzun: Sendoa, 1993.
- ZAVALA, Antonio; ELICEGUI, Mikaela. *Pello Errotak jarritako bertsoak*. San Sebastián: Auspoa, 1963, nº 33.
- ZUMTHOR, Paul. *La letra y la voz de la "literatura" medieval*. Madrid: Cátedra, 1989.